

BERMEOKO UDALAREN EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAREN ARAUDIA (2016/2019)

Bermeoko Udalaren Euskararen Aholku Batzordea 2003. urtean eratu zen. Lehen aldia egin zuen (2003/2006), baita bigarrena (2006/2011) eta hirugarrena ere, (2011/2016) eta 2016an laugarren aldiari hasiera emango dio.

Agiri honetan, laugarren aldi honetan izango duen jarduteko arautegia jaso da.

Izaera

Organo hau udalerrian hizkuntza-normalizazioan diharduten talde, elkarte eta erakunde publiko eta pribatuetako ordezkarien eta herritar euskaltzaleen harreman-lekua da, eragile horiek parte hartzeko organoa, informazioa jaso eta trukatzeko, eztabaidarako, proposamenak egiteko, eta Udalari ekarpenak egiteko. Batzordearen ekarpen horiek eragina izango dute Udalaren erabakietan.

Egitekoak

1. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana osatzeko (plan estrategikoa eta urtez urteko kudeaketa planak) Udalari proposamenak egitea eta aholkua ematea, planak Udalbatza Osoak ontzat eman aurretik.
2. Onarturiko plan estrategikoa garatzeko urteko kudeaketa-planen jarraipena egitea.
3. Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko lanekin zerikusirik daukaten gaiak aztertzea, ekintzak proposatzea, antolatzea eta gauzatzea (kanpaina zehatzak, Euskara eguna...).

Partaideak

Udalaren Euskara Aholku Batzordea partaide hauek osatuko dute:

1. Batzordeburua: Bermeoko Udaleko Euskara Batzordearen Burua.
2. Udaleko Euskara Batzordeko kideak.
3. Bermeoko Udaleko Euskara Saileko teknikari aholkulariak:
 - EBPN eta Zerbitziburua: Maite Alvarez de Zarate
 - Udalaren Erabilera Plana: Aitziber Gabikaetxebarria Goikoetxea
 - *Geurien be bai*-ko teknikaria(k), gaiak hala eskatzen duenean
 - UEMAko teknikari bat



4. Idazkari lanak teknikariek egingo dituzte.
5. Udalerriaren hizkuntza-normalkuntzan eragiten duten esparruetan esanguratsuak diren pertsonak, gizarte-esparru hauetan dihardutenak: irakaskuntza, helduen euskalduntze-alfabetatzea, enpresak, sindikatuak, merkataritza eta ostalaritza, osasungintza, aisialdia, kirol elkarteak, gazte elkarteak, kultura elkarteak, auzo elkarteak, gurasoen elkarteak, euskara elkarteak, jai batzordeko kideak, erlijioa, herriko komunikabideak, herritar euskaltzaleak eta alderdi politikoak. Horiez gain, Udaleko Gazteria, Kultura eta Kirol arloak eta, unean uneko gaien arabera, beste arlo batzuetara zabaldu, esaterako, merkataritza eta turismoa.

Euskara batzordeburuak kide horiek izendatzeko gonbitea egingo dio elkarte edo erakunde bakoitzari eta horiek, ordezkaria izendatuko dute, urte birako. Edozelan ere, horien kargu-aldia luzagarria izan daiteke.

Kide horietakoren bat ordezkatu beharrik izanez gero, dagokion elkarte edo erakundeak beste bat izendatuko du, aurrekoari geratzen zaion denboraldirako.

Udalaren Euskararen Aholku Batzordeak, gaiaren arabera, lantaldeak eratuko ditu, egitasmoen garapenerako. Lanean ari diren taldeak eta jarraipen batzordeak:

1. Transmisio lantaldea. Esparru hauetako egitasmoen jarraipena egiteko: Euskalduntze-alfabetatzea, irakaskuntza, familia.
2. Geurien be bai egitasmoaren jarraipen batzordea
3. Berbalagun jarraipen batzordea
4. Ikasle etorkinen eskola lagungarrien jarraipen batzordea

Horrez gain, beharizanen arabera sortuko dira beste lantalde batzuk, esaterako, Geuk eus kanpainarako lantaldea edo Euskararen Kalitate Taldea. Udalak herritarrentzat sortzen duen produkzio idatzia hobetzen laguntzeko.

Lantaldeetan Euskararen Aholku Batzordeko kideek parte hartzen dute, kide bakoitzaren lanbide-esperientzia eta lan-arloko ezagutza aintzat hartuta.

Horrez gain, batzordez kanpoko adituek parte hartu ahal izango dute, gaiak hala eskatzen duenean.

Lantalde horietako batzar-deiak Batzordeko idazkariak egingo ditu, idatziz, batzar-eguna baino zortzi egun aurretik gutxienez. Idazkian bileraren data, ordua eta tokia jasoko dira eta baita batzarraren gai-zerrenda be. Lantalde horiek, bestalde, Udaleko Euskara Sailaren laguntza teknikoa izango dute.



Jarduteko modua

1. Hartu-emanak Udalarekin

Euskararen Aholku Batzordeak Euskara Batzorde Informatiboaren bitartez izango ditu Udalarekin izan beharreko hartu-eman guztiak.

2. Zerbitzu teknikoa

Batzordearen funtzionamendu egokia bermatzeko, Udaleko Euskara Sailaren laguntza teknikoa izango dau.

3. Batzarren aldikotasuna

Euskararen Aholku Batzordeak urtean ohiko bi batzar izango ditu gutxienez, eta horiez gain Batzordeburuak ohi kanpo dei ditzakeenak. Batzar-deiak idazkariak egingo ditu, idatziz, bilera-eguna baino zortzi egun lehenago gutxienez. Idazkian batzarraren data, ordua eta tokia jasoko dira eta baita batzarraren gai-zerrenda ere. Ohiz kanpoko deialdiak aipatutako ezaugarri berak izango ditu, eta batzarra egin baino lau egun aurretik gutxienez egin beharko da deia.

Lantaldeek ere, urtean batzar bi izango dituzte gutxienez.

4. Batzar-agiriak

Euskararen Aholku Batzordearen idazkariak bileren agiria egingo du Batzordearen –edota lantaldearen- hurrengo batzarrean onartzeko.

Agiria onartu ondoren, batzordeburuak eta idazkariak izenpetuko dute. Agiriak Udaleko Euskara Sailean gordeko dira eta Aholku Batzordeko kideen esku izango dira.

Araudi honetan aurreikusi ez diren gaietan, Osoko Bilkuretarako ezarritako arauak aplikatuko dira.

